

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcinak premiazkotzat jotzen du eragile ekonomiko eta sozialekin lortutako ituna maila politikora eramatea

Nafarroako Eguna dela-eta egindako agerraldi instituzionalean, Lehendakariak esan du egungo egoerak "irtenbide arduratsuak eta iraunkorrak eskatzen dituela adabakien ordeztan"

Miércoles, 03 de diciembre de 2014

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak [Nafarroako Eguna](#) dela-eta egindako [agerraldi instituzional](#)ean adierazi du, "dagoeneko premiazkoa dela" indar politikoak "adostasunak eta akordioak lortzeko gai izatea", Foru Gobernuak berriki eragile ekonomiko eta sozial adierazgarriekin [sinatu](#) duen moduan.



Barcina Lehendakaria, Alberto Catalán eta Lourdes Goicoechearen artean, ekitaldian.

"Hori da jarraitu beharreko bidea" erantsi du Lehendakariak, "egoera honek irtenbide arduratsu eta iraunkorrak eskatzen baititu adabakien ordeztan. Neurri horiek adostasun zabalean oinarritu behar dira eta, besteak beste, ustelkeria desagerraraziko dute".

Yolanda Barcinak egindako agerraldian onartu du egungo egoera "zaila izaten ari dela eta aurre egiteko erronka handiak direla"; haien artean, langabezia. Alde horretatik, Lehendakariak langabeei ziurtatu die Nafarroako Gobernuak "bere energia eta borondate guztia jartzen duela haien laguntzeko eta beren egoera gainditzeko".

Nafarroako lehendakariak azpimarratu duenez, "azaroan gorakadaxoa izan arren, gaur 3.772 langabe gutxiago dago Nafarroan duela urtebeteko datuen aldean, eta jadanik urte arteko beherakada hamalau hilabetez jarraian gertatu da". Barcinak beste adierazle batzuk ere aipatu ditu, eta haiek "Nafarroaren ekonomian joera-aldaketa bat dagoela baieztatzen dute"; eta "nazioarteko ezegonkortasunaren zoriaren mende, 2015ean hazkunde handiena jasango duen Europako komunitateetako bat izango garela diote".

Arrazoi hori dela-eta,
Yolanda Barcinak Nafarroako
herritarrei eskatu die ez
daitezela "batzuk sinetsarazi
nahi diguten" ezkortasunean

murgildu, "hainbestetan erakutsitako" duten lanerako
gautasuna, sakrifizioa eta ahalegina erabil dezatela, eta "bidea
zabaltzea eskatzen ari diren gazteen ideiak nahiz energiak"
ondo har ditzatela.

Nafarroako kooperantea gogoan

[Nafarroako Urrezko Domina Foru Komunitateko
industrializazioaren sustatzaileei emateko ekitaldian](#), Barcina

Lehendakariak Mugarik Gabeko Medikuen kooperantea gogoan izan du, Malitik aberriratutakoa Ebola gaitzarekin infektatu egon zitekeelakoan; Lehendakariak nafar guztien "maitasuna, errespetua eta miresmena" igorri dizkio.

Kooperanteari buruz, Lehendakariak esan du "gure lurraldeko misiolari, kooperante eta boluntario guztien historia miresgarria" jarraitzen duela, eta haiek "beren ahalegin guztia eskaini dietela behar handiena dutenei, Nafarroaren irudi solidario eta konprometituta emanez".

Azkenik, Yolanda Barcinak gogora ekarri du, Nafarroako Lehendakaria izanik herritarrei zuzentzen zaien azken aldia izango dela gaurkoa; "jaiotzez edo bihotzez" nafarrak diren eta Foru Komunitatetik at bizi diren guztiei agur bat bidali die ere, eta baita beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonei ere, "gure lur honetara etorri direnak lan egiteko eta etorkizun bat lantzeko; hala, gure lurra garatzen eta aurrera egiten laqunduko dute". .



Kultura Departamentuko egoitzako patioaren ikuspegi orokorra.